

# ELKARTEAK, BURUERAGILETZA ETA BEREZKO LOTERIA

***"Berezko loteria" (eta beronen ondorioz sortua den "gizarte loteria") Ravnisek erabili zuen lehendabiziko aldiz eta norbanakoak aberats edo behartsu, osasuntsu edo gaixo, polit edo itsusi izateko hautatuak diren moduari aplikatzen zaion izendapena da. Honelako gertakariak argitzeko "berezko loteriaren" kontzeptura jotzea tximistak jotzen gaituenean patu itsuaren kontzeptura jotzea bezalaxe da.***

"Berezko loteria" kontzeptuak mikro-esleipen eta makro-esleipenak daude. "Berezko loteria" ezberdina da baliabideak banatzeko erabil dezakegun loteriaren aldean. Halako edo bestelako gauza nori egokituko zaion erabakitzeke loteria bat antolatzean-berdin dio gauza atsegina edo atsekabea izatea-gutxienez loteria edo zozketa batez baliatuko garela eta berorren baldintzak finkatzen esku hartu dugu. "Berezko loteriaz" edo naturalaz hitzegiten dugunean, bestalde, aitortzen dugu loteria naturaren beraren baldintza dela izatena eta iharduteko eran. Zentzu horretan, patu itsuaren iharduna da eta gure nahiaz eta kontrolaz haraindi aurkitzen da.

"Berezko loteriaren" kontzeptuak estuki loturik daude pazienteak eta berorien gaixotasunak tratatzeko dugun moduarekin.

Baldin eta sinesten badugu "berezko loteria" dela osasuna eta gaixotasuna eragiten dituen faktore bakarra, bestela izango ez genukeen obligazio mota jakin bat sentitzen dugu biktima horiekiko. Batzuetan, ordea, "berezko loteriaren" kontzeptuaren orez edo gainera, gaixotasunaz ari garenean, gurueragiletza (self-causation) kontzeptura jotzen dugu: gaixotasuna pazienteek berek eragina dela eta horregatik

beren erantzukizun bakarraren azpian da-goela uste izaten dugu.

"Berezko loteria" ikusteko moduak badagu zerikusia hartako gaitzaileak dohakabe soil (nolabait esateko patu itsuaren biktima) edo, nolabait, gaizki tratatuak bezala ikusteari dagokionez. Burueragiletzak, bestalde, errua pazientearen gainera botatzera bultzatuko gaitu eta, kasu askotan, eta paziente horiek "loteriaz" kanpo eta ondorioz elkarrearen erantzukizunaz kanpo daudela aitortzera eramango gaitu. Elkarrearen egiturei buruzko ikuspegiak, "berezko loteriari" buruzko ikuspegiak eta burueragiletzaz ditugun sentipenek determinatuko dute gure aukera asko bai medikuntzako eta beste arlo askotako etika.

Ondorengo lerroetan elkarrearen egitura ikusteko daukagun modua eta "berezko loteria" eta burueragiletza kontzeptuak aztertuko dira eta gogoeta horiek elkarrekin gibizatzen saiatuko gara gure aukera etiko askorentzat oinari izan daitekeen jarrerara koherente bat bilatzen ahaleginduz.

Horretarako, aurrena elkateari buruzko zenbait kontzeptu ezberdin aztertuko dira eta baita berorietatik sortzen diren zenbait ondorio ere; "berezko loteria" kontzeptua ere sakonduko da, baina medikuntzara soi-

lik mugatu gabe, burueragiletza nozio batzuk ere miatuko ditugu eta azkenik, ikusiko dugu, nola "berezko loteria" kontzeptua fikzio onbera (edo ez hain onbera) den, elkartea modu jakin batean ikusten dutenei komeni zaiena, eta gizarteak pairatzen duen kaltea eta injustizia sortzen duena, eta burueragiletza kontzeptua, berriz, sinpleegia dela kausalitate kontzeptu bezala hartzeko.

## KOMUNITATEA

Komunitateak kontratu tazituz antolatuturik daude. Beraz, horrelako kontraturik gabe, elkarrekiko betebeharren ulerkuntzarik gabe ez dago komunitaterik. Nor bere alde dabilen eta elkarrengan fidatzen ez diren norbanakoz osaturiko multzo bat besterik ez da izango.

Gutxienezko kontratu maila elkarri kalterik ez egitean dago. Horretako komunitatean askatasuna absolutu bat da eta ez moralitate-balio. Gisa honetako komunitateak, esan ohi da, eman ohi du komunitate pluralista eraikitzeko oinarri bakarra. Ikuspuntu honek adierazten du askatasun absolutuaz kanpo ezin litekeela beste eredurik izan barrenean pentsatzen da errealitatean buruzko ikuspegi ugari daudela eta ikuspuntu horiek aro historiko jakin batek inposaturiko puntu abantailazkoak baldintzapetzen dituela. Hala ere, errealitatean buruzko ikuspuntu ezberdin ugari daudelako sinesteak beste ikuspuntu batzuk ere izenpetu ditzake. Gainera, horrelako ikuspegi batek ez du derrigorrean esan nahi ikuspegi guzti horiek balio berekoak direnik.

Ikuspegi minimalistak ez du behar adina azaltzen nola sortu zen gizarte-kontratu. Elkarren artean hizarmen edo ituna egiteko, gutxienez ustekizun edo suposamendu tazituren batzuk izan beharko ziren. Berorien artean konfidantza-sentimendua legoke, izan ere bera gabe hitzarmen ideia bera ere aztabaidagarria bait litzateke. Konfidantzak onginahi edo ongintza baten hasimasiak edukitzea eskatzen du gutxienez.

Komunitatea, ordea, ikuspegi minimalista baina harago beste batzuen argitan ere ikus daiteke. Elkarri kalte edo minik ez egiteaz gainera, elkar zaindu edo elkarri mesede egitea bezalako ideiak ere oinarrian dituzten ikuspegiak egon litezke komunitatearen sorreran. Horrelako komuni-

tateetan, askatasuna ez da ukiezin edo absolutua, baizik eta oinarritzko balio eta bizitza moralaren emaitzat hartzen da. Kasu honetan, ongintza betebeharrak moral areago da, gehigarritzko egintza ezmorala baino. Horrelako komunitateetan, eta ahal den heinean, gosea dutenak, etxegabeak eta gaixoak hornitu eta zaindu beharrekoak diran. Honelako komunitateetan, gutxienez, premia horiei erantzun bat emen beharra sentituko da, nahiz eta emaitzak helburuetatik aski urrun geratu.

Komunitate minimalistan, justizia autonomian oinarritua daukanean, besteak beste, ez da izango a) behartsuak zaitzeko obligaziorik, b) segurantza-politikak edo birtarteko pribatuek ordaindu beharreko osasun-zainketa sistemarik, c) ezta askatasun pertsonala murrizten duen legerik gaixotasun kutsakorrek, profesional lizentzidunak kontrolatzeko edota jakien, uraren eta sendagaien segurtasun eta purutasuna ziurtatzeko.

Aldiz, ikuspegi zabalagoan oinarrituriko komunitateetan behartsuak zaintzeko obligazio morala onartuko da, premien arabera erantzun duen osasun-zainketako sistema bat antolatuko da eta gaitz kutsakorren, profesional lizentzidunen kontrola izango da eta jaki, ur eta sendagaien segurtasuna ere kontutan hartuko da.

## BEREZKO LOTERIA

Sarritan jotzen da "berezko loteria" kontzeptura (eta berorren azpimultzo bat den "gizarte-loteria" kontzeptura) osasunaz eta gaixotasunaz hitzegitean. "Berezko loteria" patua adierazteko beste hitz bat baizik ez da: itsuki osasunez ala gaixo egongo garen, aberats ala behartsu, itsusi ala polit izango garen erabakitzen duen patua. Tximistak joa gertatzea bezala, ez da inork buruturiko zerbait, eta ondorioz, ez du zentzurik erruduna bilatzeak ere.

Funtsean hiru era daude "berezko loteria"ri begiratzeko eta beronen ondorioak hartzeko. a) Berezko loteria patu hutsaren obra bezala har dezakegu, inoren erantzukizun ez bairitz bezala, eta ondorioz erremedioarekiko edo laguntzarekiko inork obligaziorik ez balu bezala; b) berezko loteria patu itsuaren ondorio bezala har daiteke, baina aldi berean kaltetuak beren errurik gabe galtzaile gertatu diren biktima bezala, edo d) kausalitatea konplexua dela

onartu eta osasuna, ondasunak eta edertasuna patu hutsera mugatzea, batez ere mundu konplikatu batean, ez dela egia eta oinarri honetatik beste betebeharrak batzuk sor daitezke.

Baldin eta "berezko loteria" bere biktimak era azarezko eta iragarriezinean jotzen dituen patu bezala ikusten badugu, eta bestalde, komunitateak norbanakoak elkarri kalte egitetik libratzen dituzten betebeharrak lotuak bezala ikusten baditugu, ezinezkoa da berezko loterian galtzaile direnei laguntzeko obligaziorik sortzea. Galtzailearen patua txarra bada ere, komunitateak ez du hari laguntzeko obligaziorik. Tximistak (edo pobrezia, gaitzak edo deformazioak) jotako biktimak espero lezake laguntzaren bat baina inork ez dauka ezer emateko obligaziorik. Aldiz, ongintzazko obligazioen batzuk bere baitan hartzen dituen komunitate bati bagagozkio, zoritarrekoei laguntzea obligazio moral bihurtzen da.

Berezko loteria patuaren joku gaizto baten modura jartzen badugu, posible da galtzaileak beren patua izateko ezer egin ez dutenak bezala ikustea. Ez dute erririk eta, horregatik, bidegabeki tratatuak bezala era ikusiak izan daitezke. Komunitatearen nozio minimalista dutenek esan lezakete, nahiz eta galtzaileen errua ez izan zorte txarra, komunitateak ez daukala beraiekiko inolako obligaziorik. Komunitateari buruzko ikuspegi minimalista horretan bidegabeki tratatuaren aldeko laguntzarako obligazioa inoren egintza berarizkoari darion txarkeriatik bakarrik sortu litzateke. Ikuspegi horrentzat berezko loteria "molaki neutrala" litzateke, beraz, obligazio moralik gabe. Baina komunitate-kontzeptu zabalago batetik justizi nozioa ateratzen duten komunitateek uste dute "berezko loteriaren" biktimak badutela eskubidea ongintza zentzuaren ikuspegitik ezezik komunitatearen justizi nozioarenetik ere iaguntza itxaroteko.

Bestalde, ukatu egin genezake "berezko loteria" izandapean sartu ditugun adibide asko patu itsuaren adibideak zirenik. Kausalitatea hori baino askoz gauza konplexuagoa izan liteke. Azken finea, miseria gorrian jaiotzea, malnutrizioak jota edota enfisema, bihotzekoa edo hipertentsioa garatzea zertxobait konplikatuagoak dira tximistaren ukaldia hartzearen aldean. Behin eta berriz aditzera eman izan da gaixotasuna eta osasuna, neurri handi batean behintzat, komunitatearen kontrolpean dauden faktoreei zor zaizkiela eta, horregatik, gizarte-konstruktua direla. Besteak beste.

pobrezia ia beti tarteko agertzen da eritasunaren alderdi guztietan, jaiotzaurretiko zainketa ematerik izan ez duen amarengandik jaio den hau mazkarraren kasutik hasi eta immunizazio-programarik ez zegoelako premiarik gabe eritasunak joa jaio den haurrengainaino edota behar adina bertasun edota bere buruari emateko edota sendagaia egokia erosteko modurik izen ez duen adinekoarengainaino. Gainera, industri giroan bizi izateak, ingurunearen kutsadurak eta beste era askotako faktoreak ere tarteko izaten dira eta horregatik tximistak jotakoaren kasuan aurkitzen direla esatea faltsua da. Tximista sortzen duten indarrak oraingoz giza kontrolaz dauden bitartean, eritasuna eragiten dutenak, neurri handi batean, gizarte-konstruktua dira.

Beraz, eritasuna eta osasuna, hein batean gizarte-konstruktua direla sinesten badugu, hau da, neurri batean gizarte eraikia dagoen moduari zor zaizkiola, komunitate bezala eta berori osatzen dugun norbanako bezala, behartuak sentituko dugu geure burua erantzukizun motaren bat onartzera sortu dugun hori hobetzeko eta posible den neurrian aurrea prebenitzeko. Zoritzarreko galtzaile hutsak ikusi ordez gizarte-sistemak nahigabe sorturiko biktimak ikusiko ditugu, eta indar itsuek sorturiko bidegabetasunaren ordez, komunitatearen nahia eta beharrianak sorturiko indarren biktimak ikusiko ditugu. Gizarte-sistema perfektu batean ere eritasunak izaten iraugo lukeelakoa, utopiazko aurrebaldintza batzuetatik abiatu argudiatu nahi ez bada behintzat, egia baina muntagabea da. Horrelako gizarte teoriko batean, eritasunaren intzidentziak beste itxura bat izango luke eta obligazioak ere beste forma bat hartuko luke. Gure munduan, eta normalean irudika dezakegun edozein mundutan hori aitortzeak ez luke zentzurik.

Komunitate minimalistek partzialki beheren onartzen badute osasuna eta eritasunarekiko erantzukizuna, neurri horretan ondorioei erremedioa jartzera ere beharturik aurkituko dira. Erantzukizuna aitortu eta onartzen duen neurrian bakarrik egingo dute justiziaz. "Berezko loteriak". itsuki zortea banatzen duela esatea aitzakia bat izan liteke erantzukizuna nor bere gain hartzeko. Baina erantzukizuna, kausa bera bezalaxe, aldean itza da, horregatik, ikuspegi zabalago baten gainean antolatutako komunitateetan kausazko erantzukizunarengatik ezezik, beste maila batzuetako obligazioak ere senti daitezke. Obligazio horiek bi eratoko erroak izan ditzakete: 1) batzue-

tan pazienteek beren ezbeharrean oso kausa-paper eskasa dutelako bidegabeki nozitzen ari direlako zentzua; 2) ongintza-betebeharrei darien eta komunitateko ki-deak elkarri laguntzeko eta kausak alde batera utzirik batabestearen zorigaitzak arintzeko sentitzen den obligaziotik.

## **BURUERAGILETZA (SELF-CAUSATION) NOZIOAK**

Zenbaitek bere buruari eritasuna eragiten diola ezin ukatuzkoa da. Frogak nabariegiak dira ukatu nahi izateko. Biriketako minbizia edo enfisema duen erretzailea, diabetiko gizenegia, gatz edo gantz gehiegi jaten jarraitzen duen bihotzekodun edo hipertentsioduna, zirrotiko bihurtzen den alkoholikoa edota drogadikzioaren ondorioz zenbait ondorio lazkarri pairatzen dituena, normalean uste denaren arabera, beren buruari eragiten dioten kalteen erantzule dira. Argi eta garbi dago bizi-ohiturek eta moduek eragin sakona dutela eritasuna eta osasunari dagokionez.

Baldin eta pertsona horiek bere bizi-estiloa hautatu izanaren erantzule bezala ikusten baditugu eta jakinaren gainean arrisku batzuek bere gain hartu izanaren erantzule gisa, orduan ondorioz esan genezake pertsona horiek beren patuarekiko erantzukizuna dutela neurri handi batean. Logika hau zorrotza da eta sarritan komunitatea erantzukizun ekonomikoen aurrean eskuak garbitzeko tentazioaren menpean uzten du...

Baldin eta komunitatea elkarri kalte egitetik soilik libratzeko bide bezala ikusten badugu eta askatasuna moralitatearen baldintza absolutu gisa eta ez balio bezala, orduan ez diegu lagunduko beren buruari kalte egitearen ondorioz ezbeharrean daudenei. Pertsonak erabat libreak izan daitezke beren buruari kalte egiteko, baina orduan ez dute inoren laguntzarik espero izateko eskubiderik ere. Baina oinarri zabalagoko komunitateetan bizi direnek ere ez dute oso garbi izaten beren buruari kalte egin diotenezikiko jokabideak nolakoa izan behar duen.

Berezko loteria, burueragintza (self-causation) eta ezbehardunei laguntzeko obligazioaren artean egon daitezkeen jarraira ezberdinen atzean, gutxienez badira argitu beharreko arazo filosofiko pare bat: pertsona hautatu duten bizi-estiloaren

erantzule bakar, edo gutxienez nagusi al dira? Non dago burueraginaren eta burueragina ez denaren arteko muga?

Pertsonak komunitateetan jaiotzen dira, beraz, norberak egin ez duen egoera batean. Bere familia eta komunitatearen balio bereziek, eskolakuntzak eta bizi-esperientziek gauza era jakin batean egitera bultzatzen dituzte. Honek ez du esan nahi aukera librea ukatzen denik, baizik eta aukera librea inoiz ez dela erabat librea aitortu nahi da. Burueragintzaren testuinguruan, aukera librea oso gauza konplikatu da.

Gizakiak kanpotiko indarrez inguraturik daude. Horrek ez du esan nahi zirkunstantzien ezinbesteko biktima direnik, ezta beren kontrol pertsonala nahikoa izaten denik kontrapisu egiteko ere. Zerbait egitea edo ez egitea aukeratzea, testuinguru jakin batean eta indar esplizitu eta tazitu askoren eraginpean gertatzen da. Behingoz egiten den aukera (hilketa bat, autoaren gurpila aldatzen laguntzea) errazagoa izaten da bizi-estilo jakin bat hartzea baino. Denbora luze baten ondorioa izaten da eta hartu ondoren asko kostatzen da aldaketa ere, eta askotan ez da jakin ere egiten zergatik egin diren halako edo bestelako aukerak.

Gizarte modemoetan norbanakoarengan eragina duten indarrak konplexuak dira. Pertsonak nekez hasiko lirатеke beste ingurune batzuetan edo beste indar sozial batzuekin drogak hartzen, erretzen edo edaten, eta are gutxiago gai horiekiko atxekimendua izaten. Inguruneak zeresan handia du droga hartzeari dagokionez. Azken aukera bat sarritan ez da ageriki egiten, baizik eta poliki-poliki gertatzen da indar, presio eta kontrapresio mordo baten eraginpean. Erretzea, edatea edo droga hartzea hautatzen duten pertsonak arrazoi askorengatik egiten dute hori: lagunen presioarengatik, jakinminarengatik, asperiturik daudelako eta indar horiek kontra egiteko ez egiteko baldintzapetu dituzten indararengatik. Sarritan publizitateak bere dei atalaspokoarekin eragin erabakiorra izaten du. Esandakoak ez gaitu eraman behar eritasunaren erantzukizun pertsonala ukatzera edo "ezer ez da inoren errua" bezalako jarrerara bat hartzera. Guzti honek arazoaren konplexutasuna zenbaterainokoa den hausnartzera eraman behar gaitu, eta errazegi eta sinplistikiegi hatz erakuslea erabiltzetik libratu.

Paziente batzuk beren eritasunaren erantzule direlakoari egin lekiokoen objek-

ziorik praktikoena da norbanakoaren eta komunitatearen erantzukizunen arteko muga ezartzeak berekin due zailtasunetik dator. Non ezarri beharko litzateke justiziarren izenean muga-lerroa? Erretzaileak, edaleak, droga-erabiltzaileak, gatz edo koipe gehiegiren jaleak, sedentarioak, behar adina aire ez dutenak, etxeetan edo behar adina lo egiten ez dutenak: non ezarri behar da muga? Praktikan ezinezkoa da lerro hori ezartzea, zenbait gaixotasunetan dagoen burueragiletza elementua ukatzea ezinezkoa den bezalaxe. Baldin eta talde batzuei laguntza hasiko bagina beren buruari gaixotasuna eragin diotelako oso hautazko mugak ezarri beharrean aurkituko gainateke. Horrelakorik egiterik balego ere (eta nahi zanez gero, hautaz, egin litekeen zerbait da) identifikazio arazo bat sortuko luke, bakoitzak zenbat erretzen edo edaten duen jakitearena eta horrek "osasun-polizia" edo informatzaile-sistema moduko bat sortzea eskatuko luke.

## AZKEN ONDORIOAK

Daukagun komunitate-kontzepzioetik sortzen da gure justizi nozioak, eta ondorioz gaixotasunaren aurrean hartzen dugun jarrera eta obligazioa ere.

"Berezko loteria" hartzen bada nor izango den osasuntsu, aberats eta nor gaixo eta behartsu erabakitzen duen faktore bezala, komunitate kontzeptua bera jartzen du auzitan. Komunitateak sortu eta garatuz joan diren heinean, piskanaka beren kideak zorte hutsetik aldentzen diren egoeratan jarri dituzte. Ekonomiak sortu, industriak eraiki eta natura soilezko ingurune fisiko eta intelektuala ez ezin berorrekina batera bizi-ohiturak ere aldatuz eta distortsionatuz joan dira. Kasurik gehienetan hoberako izan da, baina hori egitean komunitateek alboemaitzak ere sortu dituzte: poluzioa, irabaziaren bila dabilen eta lehiaketan oinarritzen den merkatu-ekonomiak pobrezia eta gosea sortu ditu eta ez dizkie guztiei aukera berdinak eskaintzen. Horregatik, horrelako egoera batean berezko loteriaren ondorioez hitzegitea zinismo hutsa gerta liteke. Komunitateek beren burua antolatze-ko duen erak erabakitzen du neurri handi batean nor izango den aberats eta nor pobre, eta aipatu dugun kontzeptura jotzen bada, sarritan eskuak garbitu eta erantzukizun ekonomikoetatik libratzeko betetara-ko ez da izen ohi.

Azkenik, onartzen badugu "berezko loteria" neurri handi batean fikzio hutsa dela, hala ere gaixotasuna beren erruz garatu duten paziente mordo batekin topo egiten dugu. Horregatik, paziente horiekiko dugun erantzukizuna asko murriztuko edota ia erabat ezabatuko litzateke. Komunitateek, uste dugunez, pobrezia eta gaixotasunaren erantzukizuna parte batean behinik behin onartu behar badute, norbanakoak era hartu beharko du komunitatea egiten duen heinean.

Bestalde, ordea, norbanakoei beren gaixotasun edo ezbeharraren parte bat leporatzen zaielako, erantzukizun komunala ukatzeak ikuspegi sinplistaegia adieraziko luke. Batari ez dario derrigorrean edatea. Zigarroak erretzea edo alkohola edatea egon liteke norbanakoaren kontrolpean baina praktikan jartzea egon liteke norbanakoa errudun ez deneko faktore mordo baten baitan. Aurredisposamentu genetikoa, inguruabar sozialak, baldintzapetze goiztiarra, indar hezitzaileak, ingurugirozko presioak eta beste askok funtsezko papera dute ez bakarrik zer ohitura norberaganatu erabakitzeko orduan, baita ohitura horiek kontsideratzeko orduan ere (eta batzutan kontra egin edo amore emateko orduan ere bai). Klase sozio-ekonomikoak erabakitzen du, neurri handi batean, nor egongo den gaixo eta nor osasuntsu, eta burueragiletzarekin zerikusia duten ohitura asko nork hartuko dituen eta nork ez ere berak erabakitzen du.

Oro har, burueragiletzarekin (self-causation) asoziatzen ditugun ohiturak arrisku hazkorak hartzearekin asoziatuak daude. Erretzen, edaten edo autoak bizkor gidatzen dituzten pertsonak, denak berdinak izaki, gauza horiek egiten ez dituztenek baino arrisku handiagoak hartzen dituzte beren buruari kalte egiteko. Baina arriskuak egunero hartzen ditugu bizitzan: gidatzean arrisku handiagoa hartzen dugu, baina zenbait lanbide edo hobby onartzean ere arriskuak hartzen ditugu. Eta halere arrisku horiek eguneroko bizitzaren parte bezala hartzen ditugu eta ez gara hasten autogidariak, meatzariak edo eskilariak beren buruari egindako kaltearen errundun bezala ikusten. Burueragiletza nekez erabiltzen dugu arrazoitzat istripua izan duen gidariari, silikosisia duen meatzariari edota zangoa hautsi duen eskilariari ez laguntzeko. Burueragiletzaren ondorioz sorturiko biktimak alde batera uztea pentsatzen duen politika sinplista ezezik zinikoa dela esan liteke. "Berezko loterian" bakarrik oinarritzen den

politikak laster pentsatuko du ezbeharrak jotakoak zorte txarra izan dutela eta hala-koekin ongintzazko jarrera bat izatea aski dela.

Badirudi jarrera arrazoizkoena bi jarre-  
ren arteko sintesi bat egitea dela "berezko  
loteria" soila edota "burueragiletza" soila  
erabiltzea sinplista da, eta autonomian oi-  
narrituriko justiziaren aldeko arrazoia  
ematea da. Ongintzan oinarrituriko justiziak  
ez du loteria edo burueragiletza aitzakiatzat  
erabiltzen bere konpromisu edo obligazioei

ihes egiteko. Obligazio horiei erantzuten  
dieten komunitateak garatzeko eta hazteko  
gauza izaten dira; urko egiten dietenak,  
Afrikako Ikh herriak bezala, elkarte-izatea  
galdu eta ezabatu egiten dira.

LOEWY, Erich H.: *Communities, Self-Causation and  
the natural lottery*. Soc. Sci. Med., vol. 26, n.º  
11, 1133-1139 or., 1988. Pergamon Press.  
Great Britain. Xabier Mendigurenek itzuli eta  
moldatua.